



ALEA

arabako aldizkaria

JOSU SANCHEZ

"ARI GARA, POLIKI, DANTZA PLAZARA ZABALTZEN"



Adineko seniderik zaintzen duzu? Lagunduko dizugu!

ADINEKO PERTSONAK ZAITZEN DITUZTEN FAMILIEI LAGUNTZEKO PROGRAMA

PROGRAMAZIO BERRIA



> info+ eta izen ematea: 945 13 56 16 vitoria-gasteiz.org



ALEA 206

2019-09-13 OSTIRALA

AZALEKA IRUDIA:

MULIXKA DANTZA TALDEA.

Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Hezkuntza eraldatzeko urratsak egiten ari dira Arabako Errioxan.
- 8 **Protagonista.** Josu Sanchez, Mulixka dantza taldeko zuzendaria.
- 12 **Iritzia.** Cira Crespo, 'Asmakizuna'.
- 13 **Iritzia.** Aintzane Urrutia, 'Euskararen kupoa'.
- 14 **Sarean.** #ñigoMuguruza.
- 15 **Iruditan.** 5ak Gasteizen ekimenaren manifestazioa.
- 16 **Gizartea.** Mugikortasunaren astea Gasteizen.
- 18 **Gizartea.** Mahats Bilketaren XXVI festa.
- 19 **Gizartea.** Otsailean izango da Veleiaren epaiketa.
- 20 **Esanak eta laburrak.**
- 22 **Kultura.** Artziniegako Antzinako Azoka, larunbatean.
- 23 **Gizartea.** GEUrekin mendira ekimena, prest.
- 24 **Kultura.** Itziar Ituño, aktorea.
- 27 **Teknologia.** Etorkizuneko hiriak.
- 28 **Jolasa eta irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugarte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU Inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.

Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Cira Crespo, Aintzane Urrutia, Arrate Sanchez (Oreka IT).

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Errioxatik dator eskola aldatzeko bultzada

Hezkuntza eraldatzeko premiari buruz eztabaidatzen ari dira egunotan Arabako Errioxako ikastetxeetan irakasleak eta familiak. Ekainaren 7an egingo duten Euskal Eskola Publikoaren Jaiaren dinamikaren lehen lan saioan parte hartu dute Bastida, Oion, Lantziego, Eltziego eta Guardiako zentroek.

Testua: **Estitxu Ugarte Lopez de Arkaute**.



Eskolak eraldatzen izeneko lan saioa egin dute egun hauetan, Mañuetan, Arabako Errioxako sare publikoko irakasleek eta familiek. Denon Eskolak eta EHIGE gurasoen elkarteak antolatu dute jardunaldia, 2020ko ekainaren 7an Bastidan egingo duten Euskal Eskola Publikoaren Jaiaren jardueren barruan. Lurdes Imaz EHIGE guraso elkarteko koordinatzaileak azaldu duenez, helburua hezkuntzaz hausnartzea izan da, hezkuntza komunitate osoaren artean. "Jaia Bastidan egingo dugu aurten, eta Arabako Errioxako institutuarekin eta eskola publiko guztiekin elkarlanean ari gara eguna antolatzen". Horren harira, Arabako Errioxako eskola komunitatetik jarduera ludikoak antolatzeaz gainera, hezkuntzari buruzko eztabaidak garatzea planteatu dute, eta iragan ostegunean egin zuten lehen topaketa hori.

Bada, Mañuetako lan saioan ikastetxeen antolakuntza, bizikidetza, gatazkak eta puri-purian dauden beste hainbat gai aztertu dituzte. Gainera, hezkuntza eraldaketan aditua den Carlos Magroren laguntza izan dute hausnarketan. "Magrok planteatzen du aldaketa ez dela etorriko soilik dekretuekin edo irakasle bakoitzaren ahaleginetik, baizik eta oso inportantea dela eskoletan eztabaidak ere egitea; eta aldaketak komunitateak egin behar dituela".

Iragan ostegunean, Mañuetan, egin zuten Arabako Errioxako eskolen komunitateen arteko lehen lan saioa. E.U.



Erreterian Bastidako eskolak jaso zuen
Euskal Eskolaren Jaia antolatzeko
lekukoa. EHIGE

"ARABAKO ERRIOXAKO ESKOLEN ERALDAKETA IKUSGAI EGIN NAHI DUGU JAIAN"

LURDES IMAZ, EHIGEN ARDURADUNA

Bost eskola

Arabako Errioxan eskola publikoak daude bost herritan: Bastidan, Eltziegion, Lantziegion, Oionen eta Guardian. Azken herri honetan dago, gainera, eskualdeko institutu bakarra. Guztira, 1.161 ikasle daude horietan.

EHIGeko arduradunak azpimarratu duenez, gizartea aldatzen ari da, gizartea gero eta askotarikoagoa da, eta asmatu behar dute nola egin aurre aniztasun horri: "Pertsona guztiek eskubide berdinak izateko eta etorkizunera begira gizarte kohesionatu bat egiteko". Ildo horretan, Arabako Errioxako ikastetxe publikoak transformazio prozesu baten barruan daudela nabarmendu du Imazek, eta adibide gisa jarri du Bastidan aniztasunaren inguruan lantzen ari diren ekimenak eta egin duten lana.

Bastidako ereduak

Iragan otsailean ezagutarazi zuten Bastida eskolako irakasleek, familiek eta ikasleek arrazakeriaren kontra eta elkarbizitzaren alde garatzen ari diren proiektua; 20.000 bisita inguru jaso zituen bideoklip baten bitartez. Orduan azaldu zion Itziar Gabilondo eskolako ikasketa buruak ALEA FMri duela hiru ikasturte hasi zirela aldaketa egiten, zuzendaritzaren eta klustroaren artean egitasmoa adostu eta gero. "Proiektu eraldatzaile bat bultzatzen ari gara, inklusio erreala bermatu nahi dugu eta ikaslea fokuan jarri dugu; bakoitzaren erritmoa errespetatuz, hezkuntza pertsonalizatzea nahi dugu. Espektatiba altuak ditugu gure ikasleengan eta komunitate osoaren partaidetza bultzatzen ari gara, familien ahalduntzea ere sustatu nahi dugu". Eskolan duten kultura aniztasuna traba bat baino aberastasuna dela uste dute Bastidan, eta kudeatzea zaila bada ere horretan buru-belarri dabilta lanean.

Hortaz, Denon Eskola eta EHIGetik Arabako Errioxako ikastetxeak egiten ari diren aldaketa prozesu hori ikusgai egiteko erabili nahi dute aurten Eskola Publikoaren Jaia. Beraz, 2020ko ekainaren 7an, milaka pertsona espero dituzte Arabako Errioxan, jaiaren 29. edizioa ospatzeko. Aurten, Erreterian egin dute, *Makina bat taupada* lelopean. Ekitaldian bertan jaiaren lekukoa jaso zuten Bastidako eskolako kideek. Aurki, hurrengo urteko jaiaren leloa eta abestia aurkezteko asmoa dute antolatzaileek, eta bitartean Mañuetakoa bezalako lan saio gehiago antolatzen jarraituko dute. ■

"Hezkuntzan aldaketa asko periferietan ematen dira"

CARLOS MAGRO HEZKUNTZA ERALDAKETAN ADITUA

EHIGEk Mañuetan antolatu duen lan saioan parte hartu du Carlos Magro hezkuntza eraldaketan adituak eta Educación Abierta elkartearen zuzendariak.

Zeintzuk dira hezkuntza aldatzeko erronkaren ardatz nagusiak?

Lehenik eta behin azpimarratu behar da, sarritan kontrakoa esaten den arren, Espainiako eskola oro har ez dela porrotaren kasu bat; aldiz, arrakastaren kasu bat da. Irakasleok eta eskolek ahalegin handia egin dugu azken 40 urteetan, eta oso hezkuntza maila baxuetan zegoen herrialdea ondoko herrialdeen mailan jarri dugu. Ez dut esan nahi duguna nahikoa denik, ondo dago, baina ez da nahi duguna.

Erronka nagusia zein da?

Aniztasuna, inor atzean ez uztea. Porrotaren tasa altuak ditu Espainiak, eskola uzten duten haurren kopurua altua da... Ez gara gai pertsona guztiei ikasteko eskubidea bermatzeko, umeen zenbateko handia dago hezkuntzatik baztertuta, eta horrek aniztasunarekin zerikusi handia du. Oso desberdinak gara eta hezkuntza jorrazteko modu tradizionalak ez dute balio. Sare pribatuan eta sare publikoan gertatzen da hori.

Zer egin dezakete irakasleek hezkuntza eraldatu ahal izateko?



E.U.

Asko egin daiteke eskolatik eta asko egiten ari da. Ezer baino lehen, eskolaren helburuak birpentsatu daitezke, eta argi dugunean zer egin, metodologiak, ebaluatzeak moduak eta abar egokitu beharko dira. Eztabaida zabala egin daiteke eskolan, eta komunean erabaki zer egiten dugun, ez administrazioak markatzen duena, baizik eta eskola komunitateak markatzen duena. Familiak ere horretan gakoa dira, familiarekin harremanak hobetuz gero eta ikasleengan ditugun

"ESKOLAREN GAITASUNA GARATZEN DUTEN POLITIKEK FUNTZIONATZEN DUTE"

espektatibak igoz gero, hezkuntzaren egoera aldatu egiten da.

Baliabide nahikoa dago aldaketa egiteko?

Bai. Eskola guztiek dute aldatzeko gaitasuna. Administrazioak beti pentsatu du hezkuntzaren egoera aldatuko dutela lege berri bat onartuz edo araudia aldatuz, goitik behera gauzak eginez; baina horrek ez du funtzionatzen. Eskolari eta irakasleriari konfiantza ematen dioten politikak dira benetan funtzionatzen dutenak, eskolaren gaitasuna garatzen laguntzen duten politikak. Arazoa ez dira soilik baliabideak.

Aldaketa egitea errazagoa da landa eremuko eskoletan?

Tradizioz landa eremuko eskola baztertu egin dugu, baina azken urteetan nik inpresioa dut hezkuntzan aldaketa gehienak eta apustu berritzaileak landa eremuko eskoletan ematen ari direla, edo periferietan dauden eskoletan, ez soilik periferia geografikoan; gatazka edo premia gehiago dauden eskoletan, aniztasun gehiago dituzten eskoletan ematen ari dira aldaketa. Aldiz, erosoago dauden eskoletan ez dute aldatzeko premiarik ikusten. Ondo begiratuta, landa eremuko eskola oso berritzailea da; adibidez, orain hiri handietako eskoletan ikusi dute hezkuntza hobetzeko modu bat dela adin desberdinetako umeak nahastea eta talde handiagoak egitea. Landa eremuko eskoletan betidanik egin dute hori, beharragatik.

"Harriari asko zor diogu, eta lan berrian hori izan dugu oinarri"

JOSU SANCHEZ MULIXKA DANTZA TALDEKO ZUZENDARIA

Gasteizko Foru plazan izango da larunbatean, 21:30ean, Mulixka dantza taldeak eta Iñaki Palacios musikariak elkarlanean sortutako ikuskizun berriaren estreinaldia. Harria abiapuntu hartuta, dantza, zuzeneko musika eta narrazioa uztartzen dituen lana eskainiko dute, Iñaki Perurenaren laguntzarekin. Testua: **Mirian Biteri**. Argazkiak: **Mulixka eta Mirian Biteri**.

Egitasmo berria aurkeztuko dute larunbatean, hilaren 14an, Mulixka dantza taldeak eta Iñaki Palacios musikariak. Oraingoan harria hartu dute oinarri moduan, eta bide horretan Iñaki Perurena harrijasotzailearen parte-hartzea izan dute. Mulixka taldeko presidente Josu Sanchezek (Gasteiz, 1986) proiektuaren nondik norakoak zabal azaldu ditu datozen lerroetan.

'Harria'. Zertan datza zehazki?

Izenburuak dioen moduan, harriaren inguruko ikuskizuna da; berez, musika, dantza eta ahotsa uztartzen dituen. Harriari buruzko istorio bat kontatuko dugu, mezu bat ere baduena: harriak uste duguna baino askoz gehiago eman eta ematen digu eta asko zor diogu. Iñaki Palacios txistulari eta musikagileak bere konfiantzazko musikariekin egin ditu emanaldiko abesti guztiak; bertan, hainbat musika tresna txertatzen ditu: trikitixa, harrizko txalaparta, gitarra, baxua, bateria eta txistua.

Zenbat abestik osatzen dute ikuskizuna?

Guztira, hamabi kantu ditu, eta ordubete inguruko iraupena izango du. Horien koreografia

nik neuk egin ditut, dantzaria eta koreografoa naiz eta. Pieza horien bitartez, hainbat gauza erakutsiko ditugu: batzuetan istorio laburrak kontatuko ditugu eta beste batzuetan dantzaren bitartez harriarekin lotutako herri kirolak erakutsiko ditugu, adibidez. Horretarako, Mulixka dantza taldearen parte-hartzea izango dugu; denera, hamalau dantzari igoko dira larunbatean Foru plazako agertokira.

Zergatik aukeratu duzue harria?

Proiektu bat martxan jarri aurretik, Palacios eta biok elkartzen gara beti. Kasu honetan, sustraletara jo nahi genuen, kulturaren inguruan hori delako gure mundua. Ideia zaparrada bota genuenean konturatu ginen gure kulturaren harria betidanik egon dela presente. Iñakik esaten duen bezala, jaiotzen garen momentutik hil eta hilerrira joan arte, harriari gaude lotuta. Modu horretan ateratzen zen lehen ideia. Jarraian, horri forma emateari ekin genion, eta proiektu honetarako ezinbestekoa ikusten genuen harria modu berezian maite duen pertsona bat izatea ondoan. **Iñaki Perurena harrijasotzaile, aktore, eskultore eta bertsolaria da pertsona hori. Zer paper betetzen du leitzarrak?**



Josu Sanchez dantzaria, Gasteizko Foru plazan; bertan estreinatuko dute ikuskizuna.

Ikuskizunaren ildo jarraituko duena da, bere olerki propioak botaz. Gehienek harriarekin lotura zuzena dute, eta horietako asko harriari zuzenean hitz egiten dioten olerki hunkigarriak dira.

Proiektuari forma ematen hasi ginenean, berarekin jarri ginen kontaktuan, Leitzarantz abiatu ginen Palacios eta biok eta hasieratik interes handia erakutsi zuen. Harriari asko zor ziola eta harriagatik oraindik ere asko egin ahal zuela azaldu zigun. Guretzako oso garrantzitsua da erakutsi duen inplikazioa, berak harriaren beste ikuspegi bat erakutsi digulako; berari esker, harria beste modu batera ulertzen dugu orain, eta hori da, hain justu ere, ikuskizunean daukagun helburuetako bat. Jendeak harria beste modu batera ikusi dezala; Iñaki Perurenak harriarekiko duen ikuspuntua zabaldu nahi dugu.

Hamaika saltsan sartuta dagoen pertsona da Perurena. Galdetu al diozue horrelako egitasmo batean parte hartu izan duen aurretik?

Gauza puntualen bat bai, baina ez zen ikuskizun bat bere osotasunean, azaldutakoaren arabera; noizean behin parte hartu duen proiektu solteak izan dira. Guk istorio bat kontatzea proposatu genion, bera oinarri izanda. Mila saltsatan sartuta

dabilenez, ezetza espero genuen, baina ilusionatu egin zen eta momentuan bertan, aurrez aurre, baiezkoa eman zigun. Guztiz harrituta eta eskertuta geratu ginen.

Zenbat denbora eman duzue proiektu honetan?

Aurrekoetan baino denbora gutxiago. Urtebeteko prozesua izan da; gogorra, ez zaigulako gustatzen larregi luzatzea eta buru-belarri jarri garelako egunero horren atzetik. Arazoren bat edo beste eduki badugu ere, lantaldea zoragarria da eta erraz joan da guztia. Harro gaude lantalde osoaz.

Nolako koreografiak prestatu dituzu?

Nahiko berritzailea naiz eta koreografie ukitu freskoa ematen saiatzen naiz. Euskal dantza tradizionala izango dute oinarri, noski; baina, badaukate, baita ere, ukitu ikusgarria eta erakargarria. Gorabehera handiko ikuskizuna da, denetarik dago. Batean harria omentzen dugu, aurreku eta ezpata-dantza antzeko dantza ezberdin batekin, eta ikuskizunari toki serioa emango dio horrek. Bestetik, festa giroko koreografiak daude, dibertigarriagoak direnak. Harri-zulatzailleekin beste koreografia bat dago, perkusioa, kolpeak eta indarra oso ondo uztartuta dituen. Eta askoz gehiago ez dut kontatuko.



**"IÑAKI PERURENARI ESKER, HARRIA
BESTE MODU BATERA IKUSTEN DUGU
ETA HORI ZABALDU NAHI DUGU"**

**"ZUZENEKO IKUSKIZUN HORREN
OROITZAPEN BAT IZATEKO, DISKOA
GRABATZEA PENTSATU GENUEN"**

**"GERO ETA HOBETO DANTZATZEN DA
ARABAN, ETA POLIKI BAGABILTZA
DANTZA PLAZARA ZABALTZEN"**

**Ikuskizuna oinarri izanda, diskoa ere prestatu duzue.
Nola lortu duzue bertan islatzea?**

Ez da egiten dugun lehenengo aldia. Guretzako ikuskizuna da garrantzitsuen, baina egia da hori plazan geratzen dela eta pena ematen digu. Koreografiak grabatzea ez genuen ikusten, benetan zuzeneko izan behar duelako, nire ustez. Musikarekin ez da berdina gertatzen, zuzenekoetan bere magia eta xarma badauka ere. Zuzeneko ikuskizun horren oroigarri bat behar genuen, eta kasu honetan disko bat grabatzea

pentsatu genuen. Palaciosek sortutako hamar kantu grabatu genituen, Baga-Biga disketxearekin. Argazki bilduma eta Perurenaren olerki batzuk ere jaso ditugu lan horretan. Ziur nago musika entzuten duenari ikuskizuneko koreografia etorriko zaiola burura. Oso emaitza polita atera da. **Dagoeneko salgai al dago?**

Ikuskizunarekin batera jarriko dugu salgai, larunbatean. Estreinaldia amaitzerakoan jendeak eskuratzeko aukera izango du. Hortik aurrera, hainbat lekutan jarriko da salgai.

**'Harria' baino lehen antzeko ikuskizunak sortu dituzue;
'Lurra, ardoa, dantza' tartean.**

Lehena da hori. Arabako Errioxa izan genuen ardatz. Askotan joan izan gara hara dantzatzera, eta hango kultura ikusita dantza bat merezi zuela pentsatu genuen. Lehenengo, ardoaren dantza sortu genuen, eta izandako arrakastaz jabetuta, ordubeteko ikuskizuna egin genuen. Mulixka taldea sortu gabe zegoen eta dantzariak han eta hemendik bilatu behar izan genituen. Orain dela bi urte aurkeztu genuen egitasmoa, eta oraindik horrekin gabiltza; azken emanaldia, Marques de Riscal upategian izan da. Lan horrek izandako harrerak bultzada izugarria eman digu ikuskizunak egiten jarraitzeko.

'Lurra, ardoa, dantza' Gasteizko Principal antzokian aurkeztu zenuten. 'Harria' aurkezteko, baina, Foru plaza aukeratu duzue. Zergatik?

Kalean egitea eta Foru plaza aukeratzea ez da kasualitatea. Foru plaza ikustean berehala jabetzen gara zergatik aukeratu dugun leku hori: harriz eginda egoteaz gain, herri kirolak ere egiten dira bertan. Anekdotak bat badut horren inguruan: Perurenari jakinarazi genionean bertan egingo genuela estreinaldia berak esan zigun bere lehenetariko plaza izan zela hori ere harriak altxatzen eta gustatuko zitzaioala berriz ere itzultzea.

Larunbatean estreinaldira joaten denak zer ezberdintasun topatuko ditu ikuskizun bat eta bestearen artean?

Desberdintasunak eta berdintasunak daude. Berdintasunei dagokionez, Mulixka dantza taldea eta ahozko olerkien estiloarekin jarraitzen dugu. Baina, gaiaz aparte, koreografiak eta musika oso ezberdinak dira. Palacios txistularia bada ere, beste musika tresna batzuk sartu ditu eta hori nabaritzen da. Mulixka dantza taldeko zeinua ikusiko dute, Iñaki Palaciosen musika hori, baina ikuskizun berria da; ez da birziklatutako zerbit. **'Idiazabal' dantzarekin ere arrakasta handia izan duzue.**

Ziurrenik gehien dantzatu dugun dantza da; arrakasta handia izan duen koreografia bat da. Baina ez da besteak bezain berritzailea; dantzen aldetik, tradizionalagoa da.

Guzti honen atzean Mulixka dantza taldea dago. Oso denbora gutxian sortutako taldea.

Hala da. 2016aren amaieran sortu zen; bi urte pasatxo daramatzagu. Handik eta hemendik hartutako dantzariak osatuta dago. Bakoitzak beste dantza talde batean dantzatzen du eta

horrek asko esaten du: zure dantza taldearekin horrenbeste ordu pasa ostean, denbora gehiago ateratzea Mulixkarekin dantzatzeko; izugarria da dantzari horien inplikazioa. Hortik dator gero emaitza.

Horrek esan nahi du osasuntsu daudela euskal dantzak Araba mailan.

Hori da. Harro egon gaitzke, agian alde kuantitatiboan ez horrenbeste, baina bai kualitatiboan. Gero eta hobeto dantzatzen da Araban, eta poliki bagabiltza dantza plazara zabaltzen.

Horixe da, hain justu, 'Zabaldantzan' proiektuaren helburua ezta?

Hala da. Dagoeneko hiru urte daramatzagu egitasmo horrekin dantza zabaltzen, Gasteizko Zabalgana auzoan. Hilean behin elkartzen gara eta adin ezberdinetako pertsonen bideratuta dago. Gero eta jende gehiago hurbiltzen da eta hori poztekoa da.

'Harria' oraindik ere estreinatu gabe baldin baduzue ere, baduzue dagoeneko beste ideien bat buruan?

Proiektu berri batekin jartzen garenean, ideia zaparrada botatzen dugu lehenengo, eta ideia horiek ez dira hor geratzen. Beti dira berreskuragarriak. Momentu honetan sustraietara jo nahi genuen eta horrela egin dugu. Orain ez gabiltza horretan pentsatzen baina gogotsu gabiltza, ilusioz, eta ideiak badaude.

Larunbateko emanaldiaz gain, baduzue dagoeneko bestelako hitzordurik itxita?

Ez. *Lurra*, *ardoa*, *dantza* lanarekin bezala egingo dugu kasu honetan ere. Lehenengo, estreinaldia egingo dugu, eta geroak. ■■■



ALEGRIA-DULANTZIKO JAIK-2019 *Alegria-Dulantzi* 

Ostirala 13 | 00:00etan | Herriko enparantzan

KONTZERTUA
GOVERNORS + HESIAN

GAUJAIK | Herriko Enparantzan
Larunbata 14 23:30ean - LISKER
Ostirala 20 - 00:30etan - KRESALA
Larunbata 21 - 23:30ean - AKERBELTZ

DANTZALDIA
Igandea 22 - 19:30ean - JOSELU ANAIK

Irailaren 13tik 22ra

Ez galdu!!!

Asmakizuna



GIRA CRESPO

HISTORIALARIA

Noiz hasi zen idazteko ohitura? Zergatik? Zerk eramaten gaitu pentsamenduak finkatzera? Esaten dute lehen hitzak erroldak edo kalkuluak egiteko idatzi zirela. Hau da, idazketa burokraziarekin lotuta dago, edo, beste modu batean esanda, gizartea eta boterea korapilatzean hasi behar izan dugu idazten.

Mesopotamiako buztinezko taulatxoak eta Egiptoko hieroglifikoak azaltzen direnean, aldi berean boterea, ezberdintasuna eta sufrimendua ikusten ari gara. Eta aldrebes, historiako zulo beltzetan, non ezer ez den idazten, non jauregiak edo ondansunak ez diren agertzen, –adibidez, Greziako mundu arkaikoa baino lehen, edo Erromako Inperioa erori eta gero– jende arruntarentzako urrezko garaiak izan omen ziren. Izan ere, idazkerak injustiziaren oroitzapena ekartzen digu.

Baina ez hori bakarrik. Egun batean Borges jaunak esan zuen: "Gizakiak asmatutako gailuen artean, liburua da harrigarriena. Besteak gorputzaren luzapenak dira... liburua da irudimenaren eta oroimenaren luzapena". Idazten dugun bitartean gure pentsamenduez hausnar dezakegu, gure mundua ordenatu edo eta aukerak zabaldu. Arma boteretsua da hau.

Horregatik, seguru asko, Rapa Nuiko gizon-emakumeek konkistatzailearen superbotea ikustearekin batera, idazteko modu berri bat asmatu zuten. Badakigu bere izena: *rongo-rongo* (mezu haundia) baina ezin dugu irakurri, erabiltzen zuen jendea desagertu baita. Rapanuitarrak eskablo bihurtu zituzten eta ia guztiak Perura eramane zituzten. Bere altxorra hilobira eramane zuten. *Rongo-rongoa*, behintzat, lazturaren testigantza da.

Horregatik, seguru asko, Txinako hegoaldean emakumeek idazkera sekretu bat asmatu zuten, *nushu* izenekoa. Amek alabei emana. Harekin *Hiru eguneko gutunak* idazten zituzten. Hots, ezkontzako hirugarren egunerako abestiak. Emakumea hil ondoren su ematen zieten. Emakume batek zera idatzi zuen:

*Iturriaren ondoan,
ez dugu egarririk.
Ahizparen ondoan,
ez dugu itxaropenik galtzen.*

Azken finean, gure asmakizuna boterearen arma gisa asmatu bazuten ere, jaio zenetik kontakizuneko tresna ere izan da, eta aukera asko ditu; besteak beste, subertsiorako erabiltzea. ■

**IDAZTEN DUGUNEAN
PENTSAMENDUEZ
HAUSNAR DEZAKEGU,
MUNDUA ORDENATU,
AUKERAK ZABALDU...**

Euskararen kupoa



AINTZANE URRUTIA

INFORMATIKARIA

Oporren biharamuna bertan daukagu, eta ikasturte berriari eman zaio hasiera. Aurtengoan gainera, hezkuntza-programa berriak jarri dituzte abian Samaniego IPI, Angel Ganivet-Santa Luzia eta Barrutia ikastetxeetan: Eusle eta Magnet-Erakarri. Helburua, euskararen erabilera sustatzeaz batera, ikastetxe horiek erakargarriago egitea da. Euskara erakargarria baita.

Gasteiz Hoy komunikabidean argitaratutakoaren arabera, Angel Ganivet eta Samaniego ikastetxeetako ikasleen %83aren gurasoetako bat gutxienez atzerrikoa da. Gasteizko Euskal Eskola Publikoaren Aldeko Plataformak askotan salatu du eskola segregazioa; orain gutxi, hiriko hamar eskola publikoetako ikasleen %70aren gurasoetako bat gutxienez atzerritarra zela eta itundutako ikastetxeetan aldiz zifra hori %20ra jaisten dela ohartarazi zuen.

Segregazioaren arazoa ezaguna da Gasteizen, eta horri aurre egiteko, besteak beste, matrikulaziorako udal-bulegoak sortzea eta diru publikoz finantzatutako zentro guztietan benetako dohaintza bermatzea proposatzen du plataformak. Hots, legeak dioena bete eta orain arteko hezkuntza-itun politikei behin betiko amaiera ematea. Itun horiek zentroari dagokion inguruko gizarte-errealitateari ematen dion irteerari lotuz eta ez laguntza eskatzen duen ikastetxe pribatu orori baiezkua emanez.

Euskara erakargarria da, baina erakarpen hori lortzeko ezinbestekoa da ezagutzea. Horretarako, gurea sentitzen dugunok besteei eskaini eta erakusteko prest behar dugu; euskara eman egin behar dugu. Hizkuntzak hurkoarekin ditugun harremanak gidatzen dizkigu, besteekin komunikatzea bideratzen digu. Bada, horiek arrakastaz aurrera eramateko besteekin harremantzea beharrezkoa dugu, ez daukatenek hartu eta daukagunok eman. Baina nago, segregazioak ez duela bide horretan laguntzen.

Iraila aldaketa garaia izaten da, eta ohikoa da proiektu berriak abian jartzea. Tamalez baina, proiektu horiek euskara erakuslehoan nolabaiteko kupoa betetzen bakarrik jartzen dutela iruditzen zait, arazoari errotik heltzen ez zaiolaren itxura hartzen diot. Horrexegatik, euskara erakustokitik haratago jartzeko boterea daukatenek hausnarketa sakona egin eta erabaki ausartak hartzeko garaia badutela uste dut. Geure altxorra dugu Euskara eta ez luke derrigorreko kupoa bakarrik bete beharko, bere balioa eta balorea onartu egin behar zaizkio, eskenatokian dagokion tokia eman behar zaio. Aktorea, emakumea eta euskalduna den lagun on batek dioen moduan: kupoa betetzeko balio arren, onak ere badirela konturatzeko garaia da! Euskara erakargarria izateaz gain, ona ere bada eta! ■■■

**HAUSNARKETA
SAKONA EGIN ETA
ERABAKI AUSARTAK
HARTZEKO GARAIA
BADELA USTE DUT**

SAREAN

@MIRIANBITERI

#IñigoMuguruza

Pasa den astean hil zen Iñigo Muguruza; Kortatu, Delirium Tremens, Negu Gorriak, Joxe Ripiau, Sagarroi eta Lurra taldeetako kide izandako musikaria, eta baita euskal rockaren pizkundeko izen garrantzitsuetako bat ere. Familiak haren heriotzaren berri eman zuenetik, asko izan dira sare sozialetan gogoan izan dutenak, askotariko arloetatik idatzitako mezuen bitartez. ■



KARMELE JAIO
@karmelejaio

Hau mina. Eskerrik asko denagatik Iñigo Muguruza. Besarkada handi bat familia eta lagunei.



FERMIN MUGURUZA
@muguruzafm

Agur Iñigo. Horrenbeste maite zintudan... laster arte anaia, lagun. Gora bizitza! Gora Iñigo Muguruza!



SONIA JIMENEZ
@soniajv

Gure bizipen zoragarri askoren banda sonoraren egilea, Iñigo Muguruza! Hau pena... Bidaia ona izan.



KIKE AMONARRIZ
@KikeAmonarriz

Gure bizitzaren negu gorriak markatu eta koloreztatu dituzten abesti eta talde askoren partaide ezinbesteko izan zara Iñigo! Lurrak gozo har zaitzala!



JONTXU
@Jontxu83

Agur Iñigo, mila esker bizitza triste eta eder hau musikarekin alaitzeagatik. Paradisu zineman ikusiko gara!



ERROTA
HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Julián de Apraiz, 1
01012 VITORIA-GASTEIZ

IRUDITAN



Elkartasun oldearekin, Auzitegitik "ihesi"

Mobilizazio jendetsua batu zuen '5ak Gasteizen' dinamikak joan den larunbatean, 11/13 makroepaiketean auzipetu dituzten gasteiztarrei elkartasuna adierazteko. 'La casa de papel' serie arrakastatsua oinarri, *performance*-a egin zuten Andre Mari Zuriaren plazan. Ehunka lagunen babesarekin, 2.800 litro ur bildu eta 5 auzipetuak txalupan atera zituzten plazan paratu zuten paperezko Auzitegi Nazionaletik, ostean denen artean Auzitegia ur-puxikekin hondoratzeko. Elkartasun keinua eskertu zuten, eta epaiketa hasi aurretik larunbat honetan Bilbon egingo duten manifestaziorako deia egin zuten auzipetuek.

Argazkia: DosPorDos. ■■■



**Bidali zure
argazkiak testu
labur batekin:
erredakzioa@alea.
eus**



Bizikletaren aldeko apustua egin beharrean, Udalak ohiko ereduak ekin diela dio Gasteizko Bizikileteroak taldeak. ALEA

Mugikortasunaren formula topatzeke

Hiriak mugikortasunaren alorrean dituen gabeziak azpimarratu ditu Gasteizko Bizikileteroak taldeak. Egoera bideratu aldera, bizikletaren erabilera sustatzeko eta hiritarrei hitza emateko eskatu dute.

JUANMA GALLEGO GASTEIZ

Mugikortasunaren astea hastear dela, eta hiriak *Global Green City Award* izeneko saria jaso duen honetan, Gasteizek atzera egin du mugikortasunaren alorrean. Hala uste du bederen Gasteizko Bizikileteroak taldeak; egoera zuzentzeko hiritarrei hitza eman zaiela babestu dute. Maiatzean utzi zioten Mugikortasun Foroan parte hartzeari, Udalarekiko desadostasun handiak tarteko. Foro horretako 23 saiotan parte hartu

eta gero, "engainatuta" sentitzen direla azaldu du taldeko kide Diana Paniaguak. Lan asko egin arren, eragileak dio parte hartzeko aukerarik ez dutela izan.

Haren aburuz, gaur egun Gasteizen "benetako hondamendi urbanistikoak" gertatzen ari dira, eta Salburua eta Zabalgana jarri ditu horren adibide. "Hor benetako autobideak ditugu. Bestalde, urte bakoitzeko 4.000 bat istripu baino gehiago ditugu, eta 150 bat harrapatze". Hirian 11.000

etxebizitza huts daudela ere gogoratu du. Hori konpondu baino, hiriaren tamainagatik beharrezkoak ez diren "proiektu garestietara" jo dutela dio Paniaguak.

Alternatiben beharra

"Zaurgarrienak" babesteko beharra dagoela dio: bizikletak eta oinezkoak. "Hori egin dezatela lehenik, eta gero eros dezatela *Rolls Royce* bat, nahi badute". Udalak tranbiaren eta bus elektrikoaren aldeko apustua egin duen arren, horrek ez omen du arazoa konponduko. "Lana, eskola eta banaketa. Hiru faktore horietan oinarritzen da autoen mugikortasuna. Eta horretan ez tranbiak ezta bus elektrikoak ere ez dute laguntzen". Garraibide horiek indartu beharrean, bizikletaren aldeko apustua egiteko deia egin du. "Baina argi dago bidegorriak ez direla negozioa eraikuntzaren alorreko enpresa handientzat".

Europa mailako ekimena, "elkarrekin ibiltzeko"

Hilaren 16an hasita, Mugikortasun Iraunkorraren Europako Astearen 20. edizioa egingo dute Gasteizen. Europako 1.900 hiritan baino gehiagotan egiten da ekimena, *Elkarrekin ibiltzen* leloarekin. Auto pribatuaren "erabilera gutxitu" eta mugitzeko "bide jasangarriagoa" bultzatzea du helburu, bai garraio publikoa edota bizikleta bezalako alternatibak indartzeko. Iaz hasitako esperientzia errepikatuta, duela hainbat urte hiriaren itxura nolakoa zen gogoratzeko antzezpen antzeko bat prestatuko dute. Iaz Dato kalearekin egin zuten, eta aurten Jesusen

Zerbitzarien Fundatzailearen kalean egingo dute. Andre Maria Zuriaren plazan gaiari buruzko 'ihes-areto' bat prestatuko dute, eta Euskal Herriko Unibertsitateko campusean bizikletaren ikuskaritza teknika egiteko postu bat jarriko dute. Astean zehar, berriz, Egibideko ikasleek adinduekin arituko dira gaiaren bueltan, belaunaldi arteko mintegi batean.

Jardunaldiei dagokienez, Goiuri jauregian *Ekintzailletza eta mugikortasuna* izeneko jardunaldia egingo dute hilaren 19an. Biharamunean "mugikortasunaren aldeko

ostirala" izango da, eta Egibideko gazteek astean zehar ikasitakoa gainerako herritarrekin konpartituko dute, elkarretaratze batean. Gaez, berriz, bizikleta ibilaldia prestatu dute, Floridako kioskoan hasita. Azkenik, irailaren 21ean *Hiria nire autoa gabe* eguna deitu dute instituzioek, eta San Frantzisko kalean hainbat mintegi eskeiniko dituzte. Bestetik, Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroaren ingurua oinezkoentzako izan dadin prestatu duten proiektua aurkezteko baliatuko dute larunbata.

GAZTE 2019-2020 SORTEGIAK SORMEN LABORATEGIA

SORTEGIAK / SORTZAILEAK

 IRAILAK 30 > AZAROAK 18 BERTSOLARITZA Urhane Perro	 AZAROAK 25 > OTSAILAK 03 MUSIKA Miren Warbaitsa	 OTSAILAK 10 > MARTXOAK 30 ANTZERKIA Edurne Askaride	 APRILAK 20 > EKAINAK 08 IKUS-ENTZUNEZKOAK Hala Bideo-ko lagunak
--	---	---	--

Eta ikasturte amaieran... SORMEN ASTEBURUA!

Izen-ematea: oihaneder.eus | Fray Zecarias Martinez, 2 - Vitoria-Gasteiz | T. 615 986 832



Azken mende laurdenean finkatutako tradizioari jarraituz, mahats-bilketaren jaia egingo dute igandean. ALEA

Uzta txikiagoa, baina "bikaina"

Arabako Errioxako Mahats-Bilketaren XXVI. festa egingo dute igandean, Mañuetan. Eguraldiari begira daude mahastizainak, uzta hartzeko zain. Uzta "txikiagoa" espero dute aurten, baina "nahikoa".

JUANMA GALLEGO GASTEIZ

Urteroko mahats bilketari ekiteko prest daude Arabako Errioxako mahastizainak, eta, azken egunak izanda, inoiz baino gehiago zerura begira ari dira, eguraldiak aparteko ezustekorik emango ez duen esperoan. Dena ondo bidean, uzta "bikaina" jasotzea espero dute, oro har mahatsak "ontze egonkor eta mailakatua" egiten ari direlako, eta azken egunetako baldintzak "aproposenak" direlako. Hala aurreratu du Nekaza-

ritza Saileko foru diputatu Eduardo Aginakok, Arabako Errioxako Mahats-Bilketaren XXVI. festaren aurkezpenean.

Ardoaren Etxeko teknikariak egiten dituzten txostenetan oinarrituta, diputatuak uste du aurten mahats kopuru "txikiagoa" jasoiko dutela mahastizainek, baina, hala eta guztiz ere, ekoizpena "nahikoa" izango dela. Eguraldiaren aurreikuspenak ere alde dituztela adierazi du diputatuak. "Paper txuri bat emango baligu-

kete, bertan nahi ditugun baldintzak eskatzeko, funtsean izaten ari diren hauek idatziko genituzke". Abuztuaren 26an izandako ekaizta "susto" batean geratu dela aipatu du, eta kaltetutako landareak "tratamendu fitosanitarioei eta nekazarien zaintzari" esker ondo orbindu omen dira.

Jaia igandean

Ohi bezala, fruitua jaso baino lehen mahats-bilketaren jaia egingo dute igandean, Mañuetan. Bertako alkate Patxi Garciak aitortu du zaila gertatzen ari zaiola burua bi gauzetan izatea, bilketan eta festan, hain zuzen. Nabarmendu du herri guztia inplikatu dela jaiaren prestakizunetan, eta bi eskaera egin ditu. Batetik, igandean herrira hurbiltzean N-232 errepidea erabiltzeko, hiru kilometro ingurura jarri duten aparkalekua eta bus anezka zerbitzuak baliatuta. Bestetik, pregoilari lanetan arituko den Loquillo abeslaria "gehiegi ez nekarazteko".

E.UGARTE

GASTEIZ

Otsailaren 3an hasiko da Arabako Probintzia Auzitegiko 1. zigor salan Iruña-Veleiako indusketetan aurkitutako ostraken inguruko epaiketa, hamar urteko prozesu judizialaren ostean. *El Correo* egunkariak eman du epaiketaren dataren berri. Argitu dutenez, epaiketa bederatzi egunetan banatu beharko da, hamarnaka lekukok parte hartuko baitute.

Fiskalak bost urte eta erdiko espetxe zigorra eskatu du Eliseo Gil aztarnategiko zuzendariaren kontra, eta Aldundiak, berriz, zazpi eta erdi. Ondare historikoaren kontrako delitua eta iruzurra leporatzen diote Gili. Fiskaltzaren tesiaren arabera, 476tik gora pieza manipulatu zituen, "ospe profesionala lortzeko" eta "etekin ekonomikoak ateratzeko". Halaber, Iruña-Veleiako Lurmen ikerketa taldean Gilekin batera aritu ziren Oscar Escribanorentzat beste bost urte eta erdiko espetxealdia eskatu du fiskalak, eta bi urte eta erdiko espetxe zigorra Ruben Cerdanentzat. Diputazioak, berriz, hiru urte eta bederatzi hilabeteko espetxeratzeari eskatu du, hurrenez hurren.

Era berean, zigor ekonomiko handiak eskatu ditu Fiskaltzak hirure lagunentzat. Alde batetik, ustez manipulaturako pieza bakoitzagatik 600 euroko isuna ordaintzeko eskaera egin du, alegia 285.600 euro hiruren artean. Eta bestetik, beste 20.000 euroko isuna eskatzen du bakoitzarentzat, ardura zibilagatik.

Prentsaren bidez jakin dute

Albisteak jakin eta berehala Iruña-Veleia Argitu plataformak oharra bidali du, eta salatu du prentsaren bidez jakin dutela berria eta epaitegiko jakinarazpena asteazkenean

Otsailean, Iruña-Veleia epaitegira

Ondarearen kontrako delitua eta iruzurra leporatzen diete Eliseo Gil, Ruben Cerdan eta Oscar Escribanori; Veleia Argitu plataformak salatu du akusatuek prentsaren bidez jakin dutela epaiketaren data.

heldu dela abokatuen eskuetara. "Eskandalagarria iruditzen zaigu eta gogor salatu nahi dugu akusatuek prentsaren bidez jakitea epaiketaren data, ia hamaika urte igaro ondoren".

Gainera, epaiketaren harira, plataformak gogoratu du piezen benetakotasuna erakusten duten hogeitxosten eskatu dituztela,

"izen handiko eta nazio askotako adituek eginak"; eta halaber, akusatuek bestelako ikerketak ere eskatu dituztela lehen egunetik. "Zentzunezkoena iruditzen zaigu aipaturiko frogak epaiketa aurretik egitea, piezak benetakoak direla frogatuko balitz ez lukeelako inolako zentzurik izango epaiketategiteak".

impresion arte
Serigrafia Publizitatea

Serigrafia
Tanpografia
Inprimatze digitala
Enpresa opariak

Eskaintza bereziak

Avda. del Cantabrico 12, Pab 26 / 01013 Vitoria-Gasteiz
Tel: 945 25 49 32 / Email: info@impresion-arte.com
www.serigrafia-impresionarte.es



JOSE ANGEL CUERDA
GASTEIZKO ALKATE OHIA
Iturria: El Correo

"Hiri Berdea saria hainbat udal talde eta herritar askori esker lortutako aitortza da"



IKER URBINA
ABOKATUA
Iturria: Berria

"Jarduera politikoa eta profesionala epaituko dira 11/13 sumarioko auzian"



ALMUDENA CID
GIMNASTA OHIA
Iturria: Twitter

"Kirolariontzat gogorra izaten da garai batean izan zinen hori orain ez zarela ikustea"

ZENBAKITAN

Tonak

Garia, garagarra eta oloa

biltzeko garaia amaitu da Araban, eta emaitza "historikoak" utzi ditu uztak, UAGA sindikatuak nabarmendu bezala. Batez besteko produkzioa handiagoa izan da, oso erregularra, eta etekinetan ere gora egin du. Arabako kooperatibek 166.000 tona gari, 96.000 tona garagar eta 36.000 tona olo bildu dituzte. Soilik 2012an eta 2016an lortu zituzten antzeko produkzio kopuruak. Kalitateari dagokionez, "uzta bikaina" jaso dutela azpimarratu du UAGAk, pisu onak lortu dituztelako; gainera, garietan proteina eta hezetasun maila altua lortu dute.

166

8

Zinegotziak

Auzo-zinegotziak izango ditu hemendik aurrera Laudiok. Ander Añibarro alkateak azaldu moduan, gobernuko zinegotziak auzo ezberdinetan banatu dituzte, gune horien arduradunak izateko eta bertako bizilagunak zinegotziekin zuzenean harremanetan jartzeko. "Herritarrek zuzenean norengana jo jakingo dute. Kexak edo ekarpenak webguneaz gain zuzenean helarazteko balioko du, zinegotziekin zuzenean hitz egiteko aukera izango dutelako", esan du alkateak.

25

Urteak

Gorbeia parke naturala

izendatu zutenetik 25 urte igaro dira, eta hori ospatzeko jaialdia egingo dute larunbat honetan Sarriko parketxean. Jarduera sortaren artean, besteak beste, ibilaldi naturalistiko bat egingo dute Arabako Natura Institutuko adituek gidatuta, eta Gorbeiaiko artzainak ere izango dira, euren jardueren berri emateko prest. Artzaintzari buruzko dokumentala aurkeztuko dute eta artilea lantzen ikasteko lantegi bat ere paratuko dute.

Laster izango dira prest Gatz Haraneko ibilbide ekologikoak

Ibilbide berriari esker, Gatz Haranaren aberastasun ekologikoa eta biodibertsitatea ezagutzeko aukera izango da. Orain arte zeudenekin alderatuta, ibilbide honek berrikuntza garrantzitsu bat dauka, Muera ibaiaren ibilguaren albotik ibiltzeko aukera ematen baitu, eta haranaren historia erakusten duten jalkin geologiko diferentek ikus daitezke.



Behatoki berrira bisita egin zuten agintariek astelehenean. AFA



'Global Green City' saria. GASTEIZKO UDALA

NBEk Munduko Hiri Berdea izendatu du Gasteiz

2012an Europako Hiriburu Berdea izendatu ostean, Nazio Batuen Erakundearen Munduko Hiri Berdea saria lortu du Gasteizek, iraunkortasun alorrean egindako lanagatik. Vancouver (Kanada), Viena (Austria), Yokohama (Japonia) eta Nantes (Bretainia) izan ditu lehiakide. "Bizi kalitatea eta naturaren babesa" nabarmendu ditu Gorka Urtaran alkateak.

Euskaraldiaren Arabako foroa hilaren 17an abiatuko dute

Euskaraldiaren lurraldeetako foroak abian jarriko dituzte irailean herri batzordeetako kideek, urte amaiera arteko egiteko, mugarri eta ekitaldiak azaldu eta elkarbanatzeko asmoz. Besteak beste, herriko entitateen mapeoa egin eta abenduko kale ekintza antolatuko dute. Arabako foroa irailaren 17an elkartuko da, 18:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

Laudioko hiltegia irekitzeko "lehen pausoa" eman dute

Laudioko alkate Ander Añibarrok adierazi duenez, urtea amaitu baino lehen irekiko dute hiltegia, azpiegitura berritzeko egin behar dituzten obrak adostu eta gero. Jaurilaritza eta Udalaren artean ordainduko dituzte lanak; besteak beste, hilketa gela egokituko dute, sortzen diren hondakinak kudeatu ahal izateko, eta hobi septiko bat eraikiko dute.



Abuztu hasieran itxi zuten udal hiltegia. AIARALDEA GAUR

Antzinarora begira, Artziniegan

Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan antolatu zen lehen antzinako azoka da Artziniegakoa; larunbat honetan 22. edizioa egingo dute. Herritarrak garaiko arroparekin jantziko dira eta egun osoko egitarauaz gozatuko dute.

ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan Erdi Aroko usadioak gogoratzeko egiten den azokarik beterranoena da Artziniegako Antzinako Azoka, eta aurten 22. edizioa beteko du. Larunbat honetan, irailaren 14ean, artziniegarrek antzinako jantziak eta tradizioak berreskuratuko dituzte eta bisitari guztien bistan jarriko dituzte, herriko alde zaharrean. Artziniegakoak laguntzeko Nafarroatik etorritako hainbat artisau gonbidatu ditu Udalak.

Unai Gotxi Kultura zinegotziak azaldu duenez, antzinako azoka antolatzekeo asmoa herriko Artea etnografia elkartearen eskutik etorri zen: "1998. urtera arte Arteak artisau azoka bat egiten zuen, baina urte horretan, Arabako kopatroia den Arteko Gure Amaren 500. urteurrena zela eta, antzinako azoka antolatu zuten, eta gaur egun arte iraun du". Herritarren inplikazio handiari esker lortu zuten azoka aurrera ateratzea. "Esate baterako, garaiko jantziak eta burukoak egiteko lana hartu zuten", azaldu du Gotxik.

Pasa den urtetik, berriz, Nafarroako artisauek ere haien produktuak salgai jartzen dituzte Artziniegan, eta bide batez artziniegarrei azoka biribiltzen laguntzen diete. "Nafarroatik etortzen diren lagunak denak dira artisauek;



lazko Artziniegako Antzinako Azokan musikak ere berezko tokia izan zuen. AIARALDEA.EUS

"ARTEA ELKARTEAK SORTU ZUEN AZOKA, HERRITARREN INPLIKAZIOARI ESKER"

UNAI GOTXI, ZINEGOTZIA

eta horiekin batera artziniegarrek ere parte hartzen dute". Hala, adibidez, Artea elkarteko kide batek Euskal Herriko herri desberdinetan garaiko emakumeek eraman zituzten burukoak erakusten ditu, eta horien inguruko azalpenak eskaintzen ditu. Era

berean, Pablo Respaldizaren sutegia zabaltzen dute egun horretan, eta errementari batek antzinaroan bezala lantzen du burdina. Baserriko animaliak ere izango dira larunbateko azokan, eta aurten, nobedade bezala, dantza bertikal ikuskizuna egingo dute, Artziniegako dorretxean, 12:00etan eta 18:00etan.

Hala, azoka 11:00etan irekiko dute, Alañaren adarren hotsarekin eta pregoiarekin, eta egun osoko egitaraua prestatu du Udalak, 21:00ak arte. Artisauekin batera, kale animazioa ere izango da. ■■■

Aizkorri dute lehen helmuga

Ikasturte berrian egingo dituzten txangoen egitaraua aurkeztu du GEU elkarteak. 11 ibilbide egingo dituzte Hego Euskal Herriko mendietan zehar. Igande honetan egingo dute lehen txangoa, Aloña mendilerroa.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

2019/2020 ikasturtean egingo dituzten ekimenak prestatzen buru-belarri dabilta GEU elkarteak kideak. Azkarrenak GEUekin Mendira ekimenaz arduratzen direnak izan dira, mota guztietako aldapei ekiteko orduan sasoian dauden adierazle. Orotara 11 txango prestatu dituzte denboraldi honetarako. Horietatik gehienak egun osokoak izango dira, baina goiz batean egiteko bi ibilaldi ere prestatu dituzte.

Ohiturari jarraituz, Zaldiaran mendira joateko baliatuko dute Gabon zahar eguneko goiza; martxoaren 15ean, berriz, Badaia mendilerroa abiatuko dira. Dena ondo bidean, Pititurri mendira igoko dira, Kuartangoko bailara osoa euren begiradapean izateko.

Gainerako ibilaldi guztiak, berriz, egun osokoak izango dira, eta Hego Euskal Herriko mendiak laguntza onean eta euskaraz gozatzeko aukera emango dute. Hala, lehen hitzordua igande honetan jarri dute, hilaren 15ean, hain zuzen: Arantzazura joango dira, eta



Mendia eta euskara uztartzen dituen ekimena da GEUekin Mendira. GEU ELKARTEA

santutegian hasita Aloña mendilerroa egingo dute, Aizkorri Aratz natura parkeaz gozatzeko.

Azken egunerako utzi dute ibilaldirik luzeena, uda giroan egiteko aproposa, eta desnibel gutxikoa. Ekainaren 21ean egingo dute, hain justu, Gernika eta Bermeo arteko ibilbidea. GEU Elkarteak gogorarazi du hilean behin egiten den menditalde hau euskaldun orori zabalik dagoela, eta ez dela ezinbestekoa alde zurretik

izena ematea. Txangoaren egunean Mendizorrotzeko aparkalekura azaltzea besterik ez dago, Beti Jai frontoiaren aurrean, 08:30ean. Bertaratzen diren lagunen artean moldatzen dira autoak antolatzeko eta gasolina ordaintzeko. Mendian ibiltzeko federatua egotea gomendatzen dute, ezbeharren bat izatekotan behar-bezalako estaldura edukitzeko. Egitarau osoa, webgune honetan: labur.eus/GEUekinMendira19-20.

"Istorioak bertakoek kontatu eta zabaltzea falta zaigu"

ITZIAR ITUÑO AKTOREA

ANAKOZ AMENABAR

La Casa de Papel seriearen laugarren denboraldia grabatu berri, *Hil kanpaiak* pelikula grabatzen hasiko da datorren astelehenean. Bata eta besteen artean, etena egin du Itziar Ituño (Basauri, 1974) Gasteizen, Festival telebista jaialdian eman dioten Aisge saria jasotzeko.

Azken denboraldiko interpretazio onenari saria jaso duzu, aktoreen eskutik.

Oso pozgarria izan da. Imajinatu gremiotik sari bat jasotzea zer den! Zure lanaren aitortza handia da, eta hori pozgarria da beti. Gainera Gasteizen! Kariño berezia diot hiri honi hemen ibili naizelako antzerkia egiten Teatro Paraisorekin batera. **Momentu berezian heltzen da saria gainera, ezta?**

Justu *La Casa de Papel*-en laugarren denboraldia amaitu eta Imanol Rayok zuzendutako pelikula grabatzen hasi behar dudanean Gasteiztik pasa eta sari bat jasotzea ez da batere txarra kar kar...

Tsunami baten erdian bizi zarela esan duzu.

La Casa de Papel Netflixen estreinatu zenetik bizitako guztiagatik esan nuen. Pentsa 24 milioi lagunek ikusi dutela hirugarren parte hau, eta horretaz konturatzea...

Milaka jarraitzaile Instagramen, herrialde ugariatako lagunak mezuak... Nola kudeatzen da fama hori?

Egunaren arabera izaten da, eta lagun horiek gerturatzen diren moduaren arabera. Jende asko gerturatzen da kariño pilo bat eta bi musu ematera edota

**"LATZA IZAN ZEN
BOIKOT SAIAKERA;
USTE DUT ARRASTOA
UZTEN DUELA, EZER EZ
DA DEBALDE"**

serieari buruz zerbait esatera, eta badira argazkia bakarrik nahi dutenak... Denetarik dago, baina egia da deskonektatzea oso zaila dela. Egunean zehar ehun argazki baino gehiago egin dituzunean, ostras... etxera bueltatu eta ez ateratzeko

gogoa izaten duzu. Telesaila duzu ahotan denbora guztian, eta ez dago modurik lanetik deskonektatzeko. Modu anonimoan bidaiatzeko ere zail... horretan bizitza aldatu zait. Baina tira, lan hauetan egun batean hor zaude eta hurrengoan batek daki, beraz lasaitasunez...

'La Casa de Papel' seriearekin ere boikot saiakera bat bizi izan zenuen. Nolako arrastoa utzi du?

Latza izan zen, saiakera desatsegina, eta polita horren ostean ikustea zenbat jende erakutsi zidan babes eta animoa. Babes handia jaso nuen lagun eta ezezagunen aldetik. Baina uste dut arrastoa uzten duela, ezer ez da debalde. Noraino helduko den utzitako arrastoa? Ziurrenik lan batzuk hor geratu dira; oso gaxa da jakitea zergatik aukeratzan zaituzten eta zer interes dauden atzetik, baina batzuetan gauza susmagarriak gertatzen dira eta badakit arrastoren bat utzi duela. Publizitate pare bat erori zitzaizkidan horren harira, hasieran eskaini baina gero... Sorgin ehiza XXI. mendean, eta gertatzen jarraitzen dutenak.

Munduan gauza gutxi aldatu da, egia esan...

Zuri eragin dizu? Iritzia ematerako garaian...

Nik iritzia eman baino, normalean deitu egin didate horren alde edo beste horren alde babesa emateko... eta egiten jarraituko dut egoki ikusten badut. Orain badakit zelako eragina izan dezakeen zure lanean, tamalez, batere justua ez delako; denok dugu pentsatzen duguna adierazteko askatasuna, baina ez da egia.

Seriearen arrakastarekin, eskaintza aldetik ere aldatu da egoera?

Eskaintza gehiago daude, eta lujo bat da hori. Zer egin nahi dudan aukeratu dezaket.

Urteetan ibili naiz, beste aktoreen moduan, zetorrenari baietz esaten, askotan zeneukan bakarra zelako, eta bapatean mahai gainean lau gidoi ikusten dituzu eta erabaki bat hartu behar duzu data berean direlako. Pozgarria da.

Zeren arabera aukeratzeko duzu? Zerk erakarri behar zaitu?

Istorioak erakarri behar nau, eta dagokidan pertsonaiak. Istorioak zerbait esaten badit animatu egiten naiz, hasieran behintzat. Eta pertsonaiak ere garrantzia dauka; askotan tokatu zaizkit antzeko perfila duten pertsonaiak, eta orain beste perfil batzuetara jo nahiko nuke.

Komedia gosez, beharbada?

Gustora hartuko nuke bat.

Orain *Hil kanpaiak* thrillerrean



Gasteizko Festival jaialdiko amaiera galan izan zen Ituño, joan den larunbatean. FESTIVAL

	BAKARRIZKETAK	EKOIZPENAK	
	ANTZEZLANAK	MANAGEMENT	
	FAMILIARRAK	 www.ttipia.eus	

parte hartuko dut, eta 2020rako ere proiektu interesgarriak daude, telebista eta zinerako.

Zer bilatzen zenuen Basauriko antzerki eskolan?

Oso antzerkizalea eta zinezalea nintzen ikusle modura, eta beti izan nuen amets hori. "Zer izango ote da pelikula batean paper bat interpretatzea?", pentsatzen nuen, eta modurik hurbilena Basauriko eskola nuen. Han konturatu nintzen honek zuen mamiaz, zenbat gauza ikasi behar ziren aktore izateko... Eta han geratu nintzen, lotsatia izan arren, benetan gustatzen zitzaidalako.

'Goenkale'-rekin heldu zen jauzi profesionala?

Bai, tartean beste gauza batzuk egin arren, hori izan zen lehenengo saltoa.

Nolako eskola izan zen Goenkale, hainbat aktore, teknikari, gidoilari-erentzat...

Eskola esaten zaio, baina nik fabrika esango nuke. Euskal Herriko profesional pilo bat pasa ziren bertatik, eta ikasitakoa han jarri zuten martxan, fabrikari. Euskal aktoreen fabrikarik handiena izango zen ziurrenik.

Eta zelako hutsunea dagoen gaur, fikzioari dagokionez!

Itzela. Fabrika itxi zuten. Nire aitak Fagorren egiten zuen lan, eta ni neu ere han ibili nintzen. Lehenengo Goenkale itxi zuten, eta gero Fagor. Eta ez da gehiagorik zabaldu!

Zer falta da? Estrategiarik badago?



Itziar Ituño, 'La Casa de Papel' serieko eszena batean. NETFLIX

"LEHENENGO GOENKALE ITXI ZUTEN, ETA GERO FAGOR. ETA EZ DA FABRIKA GEHIAGORIK ZABALDU"

Ez dakit, ez naiz aditua diru banaketetan, baina sumatzen dut badagoela moduren bat. Aldatzen ari da telebista ikusteko modua, hori ere egia da, eta orain serie gehienak plataforma digitaletan egiten dira, baina euskararen

presentzia horietan ere minimoa da, eta zeozer egin behar da. Egiteko gaitasuna badugu, soberan. Bertakoek kontatu eta lau haizeetara zabaldu behar dugu. **Serie eta pelikula artean, beste zaletasunentzako tarterik geratzen zaizu? Musikan ere bazabiltza...** Azkenaldian gaizki, lan saturazio handia izan dudalako, eta apur bat alboratu behar izan dut nire parte-hartzea musika taldeetan. Baina jarraitzeko asmoa daukat, hori erabakita daukat, nire bizitzaren beste parte bat delako. ■■■



Parral

taberna

menu begetarianoa eta gosariak
asteazken zehar - asteburuetan razioak
astearteko aktibazio kulturalak

PARRALTABERNA@GMAIL.COM SAN FRANCISCO XABIER KANTOIA 4 TLF 945276493 GASTEIZ-ARABAKI

Etorkizuneko hiriak

TEKNOLOGIA



ARRATE SANCHEZ

OREKA IT

Asko dira udako hilabete hauetan bidaiaitzeko aprobetxatzen dutenak. Urte osoan lanpetuta egon eta gero, eguraldi aparta eta eguzki ordu gehiago dituzten egunak arrazoi nahikoa dira leku berriak ezagutzeko. Zure helmuga hiri berriren bat izan bada, agian turismoa egiteko modu berriak ezagutu dituzu, edo harritu zara teknologiak alor honetan hartu duen papera ikustean. Bidaiairak ibilbideekin laguntzeko aplikazioak, monumentu edo lekuren bati buruzko informazioa lortzeko QR kodeak edota esparru publikoetan wi-fi sareetara konektatzeko puntu publikoak ikusi badituzu, *smart city* batean egon zara. Baliteke bizi zaren hiria, gainera, "hiri inteligentea" izatea.

Teknologia berri hauek hirien antolamendu eta prestazioetan gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira. Berrikuntza teknologikoak hiritarren bizi-kalitatea hobetzeraz edo energetikoki efizienteagoa izatera bideratuta badaude, *smart city* bati buruz ari gara.



PIXABAY

Edo izateko bidean dagoena. Ohituta gaude teknologia berriak gure eguneroko bizitzan sartzen, eta ez gara konturatzen bizi garen hiri edo herria ere "teknologikoa"

**HIRIETAN GERO ETA
DATU GEHIAGO
JASOTZEN DA, ETA
HORIEN BABESA ERE
GARRANTZITSUA DA**

bihurtzen ari dela. Udal askok, adibidez, kaleko argiei sentsoreak jarri dizkiete argi naturalaren edo jendetzaren arabera pizteko, energia aurrezteko helburuarekin. Beste adibide bat trafikoa bideratzeko teknologiak dira. Biztanleria eta ingurunearen datuak denbora errealean jasotzen, aparkalekua aurkitzeko aplikazioak eskaini edo airearen kutsaduraren arabera autoen kontzentrazio maila kontrolatu daiteke.

Mundu osoan gero eta hiri gehiago digitalizazioaren bidean daude, hirietan gero eta larriagoak diren arazo askori konponbideak eskaintzen baititu. Segurtasuna hobetu, kutsadura murriztu, denbora aurreztu edo zaborren kudeaketa hobetu daiteke.

Dena den, zibersegurtasun arloko adituek eskua altxatu dute: hirietan denbora errealean gero eta datu gehiago jasotzen dira, eta datu horien babesa ere garrantzitsuagoa izan behar da. Oinarritzko ezaugarria, alegia. Zer gertatuko litzateke hiri oso bat *hackeatuko* balute? ■

Euskarri informatikoa
Marketing digitala
Web garapena

**GURE SUPERBOTEREAK
ZURE ENPRESAREN
ZERBITZURA**

SAP Business One
enpresa txiki eta
ertainentzako ERPa

**ZERBITZU
GUZTIAK,
HORNITZAILE
DAKARRA**

OREKA INFORMATION TECHNOLOGIES
Vitoria-Gasteiz (Araba) - 945 067 219
orekait@eteekin.eus - www.eteekin.eus

ETEeKiN
INFORMATIKA INTEGRALA

by **oreka.it**
enpresen teknologia

bai enpresen teknologia

SAP Gold Partner

Ezberdintasunak

EGILEA: URKIDE IKASTETXEA 5-C

Bi argazki hauen artean 5 ezberdintasun aurki ditzakezue. Gozatu eta egin euskaraz!!



Koloreztatu

EGILEA: BARRUTIA IKASTOLA 6. MAILA

Esaera zaharrak dioenez, *Eguzkia eta euria, Erromako zubia*. Beraz, horrelako eguraldia imajinatu eta kolore biziz margotu ezazu marrazkia. Ea nola gelditzen zaizun.



AGENDA

Irailaren 13tik 19ra

Euskararen agenda

MUSIKA

ARAMAIO Aldakan Beltz

Sastiñako musika jaialdiaren barruan.
Ostirala 13, 19:30ean, Sastiñan.

DULANTZI Hesian

Governors taldearekin batera.
Ostirala 13, 24:00etan, herriko plazan.

LAUDIO Enkore

Jatorriz erromeria eta
Diskodantzarekin batera.
Larunbata 14, 22:30ean, Latorro auzoan.

GASTEIZ Birkir

'Ilgandeak' zikloaren barruan.
Ilgandea 15; 20:00eta, Artium museoan.

DANTZA

GASTEIZ 'Humanity at music' ikuskizuna

Kukai dantza taldearekin, Jose Uruñuela kontserbatorioko dantzariarekin, Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin, bertsolariekin, Euskadiko Orkestrarekin eta beste hainbatekin. Fernando Velazquezek konposatu eta Jon Sarasuak idatzitako sinfonia kooperatiboa.
Larunbata 14, 18:00etatik aurrera, Buesa Arenan.

LAUDIO Akelarre dantza taldea

Dantza taldearen erakustaldia, Latorroko jaietan.
Larunbata 14, 20:30ean, Latorro auzoan.



MODUS OPERANDI

LEGUTIO Modus Operandi

Legutioko Kofradiak ospatuko dituzte asteburuan, eta jaien barruan joko du Iñaki Ortiz de Villalbak gidatutako taldeak. 'Baga Biga' aurkeztuko dute Legution eskainiko duten lehenengo kontzertuan. Red Iron Squad eta Mugi Panderoa taldeak ere izango dira.
Larunbata 14, 23:30ean, herriko plazan.

BERTSOLARITZA

LANTZIEGO Bertso bazkaria

Lantziegoko eskolaren 40. urteurrena ospatuko dute. Oihane Perea eta Iñaki Viñasprerekin.
Larunbata 14, herri bazkariaren ostean.

ARAMAIO Bertso afaria

Xabi Igoa, Sebastian Lizaso eta Iñaki Muruarekin.
Larunbata 14, 21:00etan, Ibabe auzoan.

HAURRAK

LEGUTIO 'Honolulu'

Ikuskizuna, Kantu Kolore proiektuaren eskutik.
Ilgandea 15, 19:00etan, herriko plazan.

DULANTZI Zezensuzkoa

Su festarekin batera.
Ilgandea 15, 21:30ean, herriko plazan.

ONENETAN ONENA ERDI-PREZIOAREN ERDI-PREZIOAN

Zatoz Euskaltelera



500
MEGA



20GB
DEI
MUGAGABEAK



AISIA
TB_a



FINKOA
DEI
MUGAGABEAK

19'9€
/hil
6 hilabetez



Kontratatu hemen:
EUSKALTEL.EUS | DENDAK | 1717



euskaltel

2019/9/30 baino lehen Zuntza eta Internet kontratatzen dituzten bezero berrientzat da sustapena, eta 12 hilabeteko iraupen-konpromisoa du. Finkoa, 100 megako Internet (500 megako daoko probaldi batekin 12 hilabeterako), mugikorra 10 GB + Mugagabeak (20 GB-ko daoko probaldi batekin 12 hilabeterako) eta Aisia TBa, hilean 19,9 € ordainduta, sei hilabetez. Gero, paketearen prezioa hilean 65 € izango da. Prezioak, BEZa barne. Informazio gehiago: euskaltel.eus.

Babesle teknologikoa:





Espacio terapéutico,
educativo y creativo
**Terapiak, hezkuntza,
sormena**

Plaza San Martín, 6
01009 Vitoria-Gasteiz
☎ 945 004 422 ✉ info@gunegasteiz.com
www.gunegasteiz.com

2019/2020 JARDUERAK

ASTELEHENA LUNES

FELDENKRAIS
16:00-17:00

JOLASEAN, CLOWN
PARA JUGAR
6-10 urte
17:00-18:30

JOLASEAN, CLOWN
PARA JUGAR
11-14 urte
18:30-20:00

DANZA ESENCIAL
20:00-21:30

ASTEARTEA MARTES

JUEGO LIBRE
AFECTIVO/JOLAS
ASKEA
17:30-18:30

CLOWN PARA
LA VIDA
18:30-20:00

CLOWN PARA LA
VIDA
20:00-21:30

ASTEAZKENA MIÉRCOLES

DANTZA ETA
SORMENA
9:00-10:00

AEROYOGA
10:00-11:30

TEATRO
TERAPEÚTICO
11:30-13:00

PSIKOMOTRIZITATEA
4-6 urte
17:30-18:30

PSIKOMOTRIZITATEA
2-4 urte
18:45-19:45

CLOWN PARA
LA VIDA
20:00-21:30

OSTEGUNA JUEVES

FELDENKRAIS
10:00-11:00

GAE: CUERPO-
VOZ-EMOCIÓN
17:00-18:00

FELDENKRAIS
19:00-20:00

AEROYOGA
20:00-21:30

GRUPO DE
CRECIMIENTO
PERSONAL
"HARREMANETAN"
Un jueves al mes
20:00-22:00

OSTIRALA VIERNES

BIOENERGETIKA
15:30-16:30

MOVIMIENTO
CREATIVO
INFANTIL
4-6 urte
18:00-19:00

MOVIMIENTO
CREATIVO
INFANTIL
4-6 urte
19:00-20:00

ESPACIO DE
REFLEXIÓN
TEMÁTICO
Mensual
20:00

IKASTURTE OSOKO FORMAKUNTZAK

Body Mind Centering
Kontakt
Inprobisazioa

TERAPIAK

Psikologia
Logopedia
Psikomotrizitatea
Osteopatia